2025eko MARTXOAREN 20an, OSTEGUNEZ, KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURAREN AKTA SINTETIKOA

Bertan zirenak : Christian Devèze, auzapeza; Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino axuantak; Corinne Othatceguy (20:00ak arte), Jean-Paul Eyherachar, Isabelle Ayerbe, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Carmen Gonzalez, Joana Lacarra, Jean-Pierre Gogny, François Hayet, Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy hautetsiak.

Bertaratu ez zirenak edo egon ezin zutenak: Yolande Huguenard, axuanta; Mme Corinne Othatceguy (20:00etatik goiti), Jean-Jacques Lassus, Sébastien Carre, Peio Etxeleku, Philippe Bacardatz, Jean-Paul Alaman hautetsiak.

Ahalordez: : Yolande Huguenard andereak Eliane Aizpuru andereari; Corinne Othatceguy andereak Christiane Hargain-Despéries andereari (20:00etatik goiti); Jean-Jacques Lassus jaunak Robert Poulou jaunari; Sébastien Carre jaunak Christian Devèze jaunari; Peio Etxeleku jaunak Jean-François Lacosta jaunari; Philippe Bacardatz jaunak Amaia Beyrie andereari; Jean-Paul Alaman jaunak Nathalie Aïçaguerre andereari.

- Bilkurako idazkariaren izendatzea.

Bertaratutakoek **aho batez**, Joana Lacarra hautatu dute bilkurako idazkari.

20:00ak arte:
Hautetsi kopurua..... 29
Parte hartu duten hautetsien kopurua..... 23
Ahalordezko kopurua.....6
Falta zirenen kopurua..... 6

20:00etatik goiti:
Hautetsi kopurua..... 29
Parte hartu duten hautetsien kopurua..... 22
Ahalordezko kopurua..... 7
Falta zirenen kopurua.....7

Bilkura hasi aintzin auzapezak proposatu du Sebastien Guber Elkargoko diruzain gisa ordezkatuko duen Coralie Lejeune anderea bilkurara etor dadila.

Coralie Lejeune andereak azaldu du martxoaren 3an Kanboko Herriko Etxera sartu zela Paris aldeko herri batean 26 urtez bizitu eta gero. Han kontabilitatean eta finantzetan hainbat lan

egin zituen. Maulekoa den bere familia euskaldunaz hurbilduz bizimodua aldatu nahi du eta aldi berean arlo profesional berdinean segitu. Kanbon luzaz bizitzea espero du.

– Gai-ordena:

001 – Auzapezak Herriko Kontseiluaren ordezkaritzan hartutako erabakien berri ematea 2
002-A – Territoire d'énergie Pyrénées-Atlantiques (TE64 bitariko sindikatua): Kornunia Kanbo Beherean venelle sareak lurperatzeko hitzarmena (sareak lurperatzea). 3
002-B – TE64: Kornunia Kanbo Beherean venelle sareak lurperatzeko hitzarmena (EP berritzea)..... 4
002-C – TE64: Kornunia Kanbo Beherean venelle sareak lurperatzeko hitzarmena (Tentsio Apaleko sareak lurperatzea). 5
003 – Petanka zelaia estaltzeko proiektua: dirulaguntza eskaera. 6
004 – Zelai sintetikoaren proiektua: dirulaguntzen eskaera. 7
005 – Langileak: langile bat Euskal Herria Hirigune Elkargoaren esku ezartzeko hitzarmena. 10
006 – Langileak: enplegu ez-finkoak sortzea, sasoiko lanaren emendioaren kari. 11
007 – Langileak: enplegu ez-finkoak sortzea, lanaren aldi baterako emendioaren kari. 12
008 – 2025eko aurrekontu-orientabideak..... 13

001 – Auzapezak Herriko Kontseiluaren ordezkaritzan hartutako erabakien berri ematea

EZTABAIDA:

2020ko ekainaren 11ko Herriko Kontseiluan eztabaidaren ondorioz emandako eskuordetzeak segituz eta Lurralde Erakundeen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluetan xedatutakoa betez, auzapezak hartutako erabakien berri eman du:

• 2025eko otsailaren 15etik martxoaren 7ra, hilobi-kontzesioak eman eta berriz hartzeari buruzko erabakiak;

• 2025eko otsailaren 14a: prozedura egokitudun merkatuko 15 (etxe) lekuren esleipena ezker pareta birgaitzeko. Prezioa: 1.398.773,07 € BEZ-a kanpo (*PSE-a*rekin, 3. (etxe) lekuarentzat);

• 2025eko otsailaren 25a: Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatearekin hitzarmenaren izenpetzea, dirulaguntza baten esleipena bideratzeko;

• 2025eko otsailaren 25a: 2 udal-apartamenturen alokairuen izoztea.

Herriko Kontseiluak, aho batez:

KONTUTAN HARTU DITU, Herriko Kontseiluak eskuordetu bezala, auzapezak hartutako erabakiak.

002-A – Territoire d'énergie Pyrénées-Atlantiques (TE64 bitariko sindikatua): Kornunia Kanbo Beherean venelle sareak lurperatzeko hitzarmena (sareak lurperatzea).

EZTABAIDA:

TE64: *"Génie Civil Communications Electroniques Option A2024"* programa
Sareen lurperatzea - Kanbo Behereko auzogunea

Gaia: baserrialdean elektrika ezarri – *"Génie Civil Communications Electroniques Option A2024"* programa
Proiektua eta finantziazioaren udal-partearen onartzea – 24TE019 dosierra

Magisek Herriko Kontseiluari jakinarazi dio Kanbo Beherea auzoguneko tentsio apaleko sareak lurperatzeari lotutako komunikazio elektronikoen obra zibila aztertzea galdegin diola TE64-ri .

TE64-ko lehendakariak egin beharreko obren gutxi gorabeherako gastuaren berri eman dio Herriko Etxeari, obrak SOCAELEC enpresaren gomendio utzi dira.

Lan horiek baserrialdean elektrika ezartzeko *"Génie Civil Communications Electroniques Option A2024"* programan txertatuko direla zehaztu du Magisek, gastuaren zenbatekoa onartzea eta obra horien finantziazioa bozkatzea proposatu dio Herriko Kontseiluari.

Entzun eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak aho batez:

IRITZIA EMAN DU goian zehaztutako obrei buruz,

IZENDATU DU *Territoire d'Energie des Pyrénées-Atlantiques* lan horiek egiteko,

ONARTU DU egin beharreko lan eta gastuaren zenbatekoa, beherean zehaztu bezala:

Lanen zenbatekoa BEZ-a barne ..... 25 991.54 €
Proiektuaren kudeaketarako laguntza, proiektuaren kudeaketa eta ezustekoak ....2 599.15 €
TE64-ren kudeaketa-gastuak ..... 1 082.98 €
OROTARA..... 29 673.67 €

ONARTU DU operazioaren behin-behineko finantziazio-plana. Horrela zehaztua:

Udalaren parte-hartzea obretan, funts libreekin finantzatu beharrekoak..... 28.590.69 €
Udalaren parte-hartzea kudeaketa-gastuetan (funts libreekin finantzatu beharrekoak) . 1.082.98 €
OROTARA..... 29 673.67 €

Obraren gastuaren behin betiko zenbaketa egin eta gero udalaren behin betiko partaidetza zehaztuko da.

Horrez gain, udalak bere parte-hartzea funts libreetatik finantzatzen badu, TE64-k zati ordainketa bat edo gehiago galdegiten ahalko dizkio, egindako lanen arabera.

ONETSI DU herriko jabego pribatuaren gaineko balizko doako jabetza eskubidea,

BAIMENA EMAN DIO auzapezari behar diren izapide guztiak egiteko eta gai honi buruzko agiri guztiak izenpetzeko.

002-B – TE64: Kornunia Kanbo Beherean venelle sareak lurperatzeko hitzarmena (EP berritzea).

EZTABAIDA:

TE64: EP berritzea - Sareak lurperatzea - Kanbo Behereko auzogunea

Gaia: *"Fonds vert 1 Trames sombres 2024"* programa
Proiektua eta finantziazioaren udal-partearen onartzea – 24REP034 dosierra

Magisek Herriko Kontseiluari jakinarazi dio argiteria publiko funtzionala berritzeko lanak azter ditzala galdegin diola TE64-ri. (22EF068 lotua)

TE64-ko lehendakariak egin beharreko obren gutxi gorabeherako gastuaren berri eman dio Herriko Etxeari, obrak SOCAELEC enpresaren gomendio utzi dira.

Lan horiek baserrialdean elektrika ezartzeko *"Génie Civil Communications Electroniques Option A2024"* programan txertatuko direla zehaztu du Magisek, gastuaren zenbatekoa onartzea eta obra horien finantziazioa bozkatzea proposatu dio Herriko Kontseiluari.

Entzun eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak aho batez:

IRITZIA EMAN DU goian zehaztutako obrei buruz,

IZENDATU DU *Territoire d'Energie des Pyrénées-Atlantiques* lan horiek egiteko,

ONARTU DU egin beharreko lan eta gastuaren zenbatekoa, beherean zehaztu bezala:

Lanen zenbatekoa BEZ-a barne	48 954.98 €
Obren kudeaketarako laguntza, obraren kudeaketa eta ezustekoak	4 895.50 €
TE64-ren kudeaketa-gastuak	2.039.79 €
OROTARA	**55.890.27 €**

ONARTU DU operazioaren behin-behineko finantziazio-plana. Horrela zehaztua:

Sindikatuaren parte-hartzea	6 000.00 €
BEZ-aren konpentsazio funtsa (FCTVA) (TE64-ak berreskuratu beharrekoa)	8.030.57 €
Udalaren parte-hartzea obretan, funts libreekin finantzatu beharrekoak	39.819.91 €
Udalaren parte-hartzea kudeaketa gastuetan (funts libreekin finantzatu beharrekoak)	2.039.79 €
OROTARA	**55.890.27 €**

Obraren gastuaren behin betiko zenbaketa egin eta gero udalaren behin betiko partaidetza zehaztuko da.

Horrez gain, udalak bere parte-hartzea funts libreetatik finantzatzen badu, TE64-k zati ordainketa bat edo gehiago galdegiten ahalko dizkio, egindako lanen arabera.

ONETSI DU herriko jabego pribatuaren gaineko balizko doako zorra,

BAIMENA EMAN DIO auzapezari behar diren izapide guztiak egiteko eta gai honi buruzko agiri guztiak izenpetzeko.

002-C – TE64: Kornunia Kanbo Beherean venelle sareak lurperatzeko hitzarmena (Tentsio Apaleko sareak lurperatzea).

EZTABAIDA:

TE64: Programa 8. artikulua (Baiona - Hirikoa) 2024 Tentsio Apaleko sareen lurperatzea Kanbo Beheko auzogunean

Gaia: baserrialdean elektrika ezarri - Programa "Programme Article 8 (Bayonne - urbain) 2024 "
Proiektua eta finantziazioaren udal-partearen onartzea – 22EF068 dosierra

Magisek Herriko Kontseiluari jakinarazi dio Kanbo Beherea auzogunean Tentsio Apaleko sareen lurperatze-lanak azter ditzala eskatu diola TE64-ri.

TE64-ko lehendakariak egin beharreko obren gastuaren balioztapenaren berri eman dio Herriko Etxeari, obrak SOCAELEC enpresaren gomendio utzi dira.

Obra horiek baserrialdean elektrika ezartzeko Programan «Article 8 (Bayonne) 2024 » txertatuko direla zehaztu du Magisek eta gastuaren zenbatekoa onartzea eta obra horien finantziazioa bozkatzea proposatu dio Herriko Kontseiluari.

Entzun eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak aho batez:

IRITZIA EMAN DU goian zehaztutako obrei buruz,

IZENDATU DU *Territoire d'Energie des Pyrénées-Atlantiques* lan horiek egiteko,

ONARTU DU operazioaren behin-behineko finantziazio-plana. Horrela zehaztua:

Lanen zenbatekoa BEZ-a barne	135 666.05 €
Proiektuaren kudeaketarako laguntza, proiektuaren kudeaketa eta ezustekoak	13 566.60 €
Notario-akta funts libreen gain	690.00 €
TE64-ren kudeaketa-gastuak	5 652.75 €
OROTARA	**155 575.40 €**

ONARTU DU operazioaren behin-behineko finantziazio-plana. Horrela zehaztua:

Kontzesionarioaren parte-hartzea	40 000.00 €
Sindikatuaren parte-hartzea	40 000.00 €
BEZ-a TE64-k aurrefinatzatua	24 872.11 €
Udalaren parte-hartzea obretan, funts libreekin finantzatu beharrekoak	45 050.54 €
Udalaren parte-hartzea kudeaketa-gastuetan (funts libreekin finantzatu beharrekoak)	5 652.75 €
OROTARA	**155 575.40 €**

Obraren gastuaren behin betiko zenbaketa egin eta gero udalaren behin betiko partaidetza zehaztuko da.

Horrez gain, udalak bere parte-hartzea funts libreetatik finantzatzen badu, TE64-k zati ordainketa bat edo gehiago galdegiten ahalko dizkio, egindako lanen arabera.

ONETSI DU herriko jabego pribatuaren gaineko balizko doako zorra,

BAIMENA EMAN DIO auzapezari behar diren izapide guztiak egiteko eta gai honi buruzko agiri guztiak izenpetzeko.

PARTE-HARTZEAK

Argitxu Hiriart-Urrutyk Hazparneko bideko obrak lurperatze-lanei ere ba ote dagozkien eta obra horiek zenbat iraungo duten galdegin du.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak azaldu du Hazparneko bideko lanak Hirigune Elkargoak egiten dituela ur edangarriaren kanalizazio bat lekuz aldatzeko, aurreikusitako biribilgunearen azterketaren kari. Kanalizazioa Lorraine-n lursailetik pasatzen zen eta zati publikora eraman zuten. Lanak hasi baino hiru egun lehenago jakinarazi zuten informazioa, eta lanak datorren aste-bukaerarako finitzea aurreikusten dute.

003 – Petanka zelaia estaltzeko proiektua: dirulaguntza eskaera.

EZTABAIDA:

Auzapezak Herriko Kontseiluari gogorarazi dio petanka zelaia estaltzeko lanak egitea beharrezkoa dela.

Lan horiei esker petankan jostatzen ahalko da eguraldia edozein dela ere. Aterpea egiteko oihal sendoko teilatua erabiliko da, prezio neurtu batean.

Kirol-zelaiak estaltzen dituen enpresa espezializatu bati galdegin zaio lanen zenbatespena egiteko aurrekontua. Estalpeak 18 metro inguruko luzera eta zabalera duten hiru petanka zelai estaliko ditu, 337 m²-ko azalera.

Lanen zenbatespenaren aurreikuspena 125.000 € ingurukoa da.

Zelai hori Kanboko petanka elkarteko bazkideen (170 bazkide baino gehiago ditu orain) nola manera informalagoan jostatzera doazen petanka jokalarien onerako izanen da.

Proiektua baliozkotzeko finantza eta teknika agirian oinarritzea komeni da.

Entzun eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak aho batez:

ONETSI DU petanka zelaiaren estalpearen proiektua

BAIMENA EMAN DIO auzapezari Estatuari eta gainerateko finantzatzaileei horrelako proiektuetarako galdegin daitezkeen dirulaguntzetatik ahalik eta gehienak galdegiteko.

ZEHAZTEN DU operazio horren finantzaketa funts libreen osagarri gisa egin daitekeela, baita mailegu bidez dirulaguntza galdegiteko dosierrean azalpen-oharren orrian adierazitako finantzaketa-planaren arabera ere.

BAIMENA EMAN DIO auzapezari behar diren izapide guztiak egiteko eta gai honi buruzko agiri guztiak izenpetzeko, operazioa behar bezala egin ahal izateko.

004 – Zelai sintetikoaren proiektua: dirulaguntzen eskaera.

EZTABAIDAK

Auzapezak azaldu du:

Azken hamar urte hauetan udalak kirol aktibitateak lagundu nahi izan ditu, bai aisialdikoak, bai lehiaketakoak. Borondate horren lekuko dira udalerriak bultzatu dituen anbizio handiko hainbat egitasmo, hala nola skate-parkea eraikitzea edo tenis-zelai estaliarena.

Herritar guztiek Michel Labèguerie kiroldegia, eraikuntza ederra, eskura dute. Herriko Etxeak eraikinaren iraupena eta modernizazioa bermatu nahi ditu, datozen urteetan planteatuko diren erronkei erantzun diezaien, besteak beste ingurumenari lotuak diren erronkak.

Horregatik, bigarren errugbi zelaiaren kokalekuan, hesitua eta manera egokian argitua, zelai sintetiko bat sortzeko proiektua du Herriko Etxeak.

Proiektuak uraren kontsumoa apalduko du nabarmen, bereziki ur falta larria izanen den garaietan. Baita zelaiaren mantentze-lanen gastua apalduko ere.

Ekipamendu hori errugbi eta futbol elkarteetako bazkideek eta herriko lehen eta bigarren mailako ikastetxeetako ikasleek erabiltzen ahalko dute. Hala ere, bigarren errugbi zelaiaren erabilpenari dagokionez, *US Cambo-ren* egutegiak lehentasuna izanen du, orain arte bezala.

Proiektuaren kudeaketa lanean ari gara, etorkizuneko obra-kontratuko loteak lehiaketara atera eta esleitzeko prozedura bukatzeko.

Lan horretatik atera dugun lehen balioztapenaren arabera proiektua 1.025.677 €-takoa da (BEZ-a kanpo), obrak egiteko eta proiektuaren kudeaketarako.

Zenbatekoa horrela banatuko da aipatutako bi proiektuen artean:

Zelai sintetikoa sortzea

Gastuak BEZ-a kanpo

Azterketa-gastuak eta proiektuaren kudeaketarako gastuak ..... 28 120 €

Obrak orotara (xehetasunak beherago)..... 997 557 €

Lur-berdinketa, estaldura, kirol-zelaia, hesia eta Errepide eta sare desberdinak (Voirie et Réseaux Divers) ..... 944 557 €
Zelai sintetikoaren argiztapena..... 53 000 €

OROTARA..... 1 025 677 €

Diru-sarrerak
Baserrialdearen ekipamendu-horniketa (DETR 2024) – % 30 (eskatutako dirulaguntza) ..... 307 703.10 €
Autofinantzaketa – %70 ..... 717 973.90 €

OROTARA..... 1 025 677 €

2020ko ekainaren 11ko deliberazioaren bidez Herriko kontseiluak auzapezari eman dion ordezkaritzaren arabera eta goiko taulan adierazitakoaren arabera dirulaguntzak galdeginen dira.

Entzun eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak aho batez:

ONARTU DU Michel Labèguerie kirol-gunean zelai sintetikoa sortzeko proiektua, 1.025.677 €-ko (BEZ-a kanpo) aurreikuspeneko diru kopuruarekin,

BAIMENA EMAN DIO auzapezari herriko partaide guztiei dirulaguntza eskaerak egiteko.

BAIMENA EMAN DIO auzapezari behar diren izapide guztiak egiteko eta gai honi buruzko agiri guztiak izenpetzeko, operazioa behar bezala egin ahal izateko.

Bigarren errugbi zelaia egiteko erabakiarekin zelai sintetikoaren proiektua abiapuntura itzultzen dela argitu du auzapezak. Etxehandiako jabeekin (elkarte sindikal kanboarra) eta zelaiaren erabiltzaileekin, erran nahi baita, St Michel Garicoitz ikastetxearekin eta Kanboko Izarrarekin, elkartu direla zehaztu du. Zelai sintetikoaren erabilera mistoa izanen dela gaineratu du.
Futbol jokalariek beste zelai bat dutela zehaztu du, Pedro Halty estadiokoaz gain. Balizko galderak aurreikusi eta aldi berean Pedro Halty estadioaren moldaketei buruzko azterketak, batez ere aldagelenak, eginen dituztela gaineratu du.
Auzapezak azaldu duenez, elkarrizketa emankorren ondorioz agerian gelditu da ikastetxeak Pedro Halty estadioko zelaia anitz erabiltzen duela egun osoan zehar. Aldageletako arazoak aipatu dira, batez ere futbolarien partetik, eta lanak egin behar direla, batez ere segurtasun arrazoiengatik. Lan horiek ikastetxearekin batera eta erabiltzaile desberdinen artean manera orekatu eta ongi pentsatuan eginen direla azaldu du.
Zelai sintetikoa ez dela proiektu berria erran du, hastapeneko bertsioaren berrikuspena dela. Adierazi duenez, proiektuaren gastua ez da milioi bat eta bederatziehun mila (1 900 000) eurokoa izanen, milioi bat (1 000 000) euro ingurukoa baizik. Bukatzeko, finantzaketa-eskaeraren dosierra Suprefetari aurkeztu diola azaldu du, baserrialdearen ekipamendu-horniketaren barnean (*DETR)*.

Iaz Suprefetak proiektu horren programazioa aurtengo plangintzara arte gibelatzea galdegin ziola oroitarazi du. Horregatik, finantzaketa-eskaera 2025 urtearentzat aurkeztu zuen eta ez 2024koarentzat, hastapenean aurreikusi bezala.

Futbol taldeak zelai hori, hastapenean behintzat, entrenatzeko erabili nahi duela argitu du auzapezak eta horrek ez duela arau edo dimentsionamendu arazorik ekarriko.

PARTE-HARTZEAK

Argitxu Hiriart-Urrutyk galdegin du ea zergatik proiektuaren gastua hastapeneko zenbatespenaren kasik erdira jausten den.

Auzapezak erantzun dio Frantziako Futbol Federazioaren eskakizunak betetzeko egin beharreko lur-mugitze lanen ondorioa zela 1,9 milioi euroko hastapeneko gastua, besteak beste ezponda eta pentoka gaineko lur bila joan behar zelako. Lur-berdinketa lanak egiteke baldin badira ere, gastua murriztu egin da, lanak ez direlako hain handiak izanen, nahiz-eta mailakatze lanak egin beharko diren lursailak aldapa pixka bat duelako. Baina gastua jaustearen funtsezko arrazoia Departamentu Kontseilura bidalitako dosierra erretiratzea da.
Hastapenean, zelai sintetikorako inbestizamendua bikoiztearen arrazoia harmailen azpiko ekipamendu bat eranstearena zen, dirulaguntzak lortzeko beharrezkoa baitzen. Hala ere, Departamentuak zituen zailtasunen ondorioz, proiektu-deialdiak bertan behera gelditu ziren eta dosierra erretiratu genuen, horrek proiektuaren gastu orokorraren murrizketa ekarri du.
Auzapezak adierazi du dosierra Peio Dufau eskualdeko diputatuari ere bidali ziola, eta harekin bildu zela. Baserrialdearen ekipamendu-horniketari (DETR) aurkeztutako hiru dosierrak eman zizkion, apirilaren 4an egitekoa zen eta Iñaki Echaniz diputatua buru zuen bilkuran bere babesa lortzeko.

Argitxu Hiriart-Urrutyk adierazten du proiektu honek ez duela homologaziorik behar orain.

Auzapezak erantzun dio homologazioa galdegin behar izanez gero baldintza gehigarriak bete beharko liratekeela, hala nola (gol) ateen gibelean lekua libratu eta beste betebehar berariazko batzuk.

Didier Irastorzak azaldu du zelaia eskualde mailako futbolerako homologatua izanen dela, 3. kategoriara arte. Hala ere, maila goragoetarako Frantziako Futbol Federazioak zelaiaren egungo neurriak berrikus ditzala galdegiten du.

Argitxu Hiriart-Urrutyk gaineratu du garrantzitsuena bi klubak lortutako akordioarekin biziki pozik egotea dela. Pedro Halty estadioan, aldagela eta zelaian, Herriko Etxearekin eta Erakaskuntza Katolikoaren Erakunde Kudeatzailea-rekin (OGEC) elkarlanean aurreikusitako lanak aipatu ditu, eta elkarrizketen nondik norakoez galdegin du.

Corinne Othatceguy gelatik atera da.

Auzapezak azaldu du ez zela jakina Kanboko Izarra klubaz gain ikastetxeko ikasleek Pedro Halty estadioko aldagelak maiz erabiltzen zituztela. Egoera txarrean daudenez, bi aukera daude: erabilera partekatua egiteko akordioa lortzea eta egin beharreko lanak (argindarra, pintura, segurtasuna) zehaztu beharreko proportzioetan finantzaketa . Edo, akordiorik ezean, aldagela horien erabilera debekatzea, bai Kanboko Izarrari zein Saint Michel ikastetxeari, azken horrek lanak egin arte. Konponbide kolektibo eta zentzuzkoa behar da eta bide onetik goaz.

Argitxu Hiriart-Urrutyk galdegin du ea zelai sintetikoa hetsiko ote den. Zerbitzu Teknikoen zuzendariak adierazi du zelai osoaren inguruan eskubanda hetsia ezartzea aurreikusita dela, ataripeetako sarbideekin.
Amaia Beyriek galdegin du ea etorkizunean, entrenamenduetatik haratago, behar edo irizpide berrien arabera, zelaiaren erabilera alda ote daitekeen.

Auzapezak adierazi du zelai sintetikoa batez ere entrenamenduak egiteko erabiliko dela, erabiltzaileen nahia hori delako. Beste zelai batzuk, aldiz, hala nola Michel Labèguerie kirolgunea, jadanik futbolean aritzeko erabilia dena, baita Pedro Halty zelaia ere, beharren eta, batez ere, aukeren arabera egokitu daitezkeela. Ikastetxearen eta Kanboko Izarraren arteko erabilera partekatua finkatzeko errentamendu enfitotiko bat aztertzen ari dira, kolektibitateen finantza-mugak errespetatuz. Kolektibitateek ezin baitute erabilera mistorako den inbertsiorik beren gain hartu. Oroitarazi du 1985eko akordio komodato batek gune horren erabiltzaileen eta jabearen artean karguen banaketa antolatzen duela jadanik, eta gogoeta juridiko sakona egiten ari direla dispositiboa egokitzeko.

005 – Langileak: langile bat Euskal Herria Hirigune Elkargoaren esku ezartzeko hitzarmena.

EZTABAIDA:

Auzapezak adierazi du Euskal Herria Hirigune Elkargoak Kanboko herriko langile baten esku hartzearen berritzea galdegin zuela, 2024ko otsailaren 3an posta elektronikoz. Kanboko herriko langile hori Elkargoaren esku ezarri eta kanpoko eta aldagelen mantentze-lanak egin beharko lituzke, baita 2025 sasoian Kanboko igerileku komunitarioaren mantentze-lan teknikoak egin ere.

Hauek dira baldintzak:

• Langile bat Hirigune Elkargoaren esku ezartzea, 2025eko apirilaren 28tik 2025eko urriaren 20ra, 777 ordurako.

• Hirigune Elkargoak Kanboko herriari itzuliko dizkio udalak ordaindutako ordainsari eta enpresa-kuota guztiak, Elkargoaren mesedetan egindako lanaldiaren proportzioan.

Entzun eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak aho batez:

BAIMENA EMAN DIO auzapezari herriko langileak Hirigune Elkargoaren esku ezartzeko beharrezkoa den hitzarmena izenpetzeko, baita erabaki hori kontutan hartzeko behar den edozein dokumentu ere. Hitzarmena eranskinetan da.

006 – Langileak: enplegu ez-finkoak sortzea, sasoiko lanaren emendioaren kari.

EZTABAIDA:

Auzapezak Herriko Kontseiluari proposatu dio sasoiko enpleguak sortzea, beherean idatzi bezala:

Ingurumen Polorako (eraikinak/festak, hiri-garbitasuna, lokalen mantentze-lanak, Arnaga berdeguneak):
- 2025/06/01etik 2025/09/30era: gaitasun anitzeko agente tekniko bat lanaldi osoa, lanpostu ez-finkoa;
- 2025/07/01etik 2025/09/30era: gaitasun anitzeko agente tekniko bat lanaldi osoa, lanpostu ez-finkoa;
- 2025/07/01etik 2025/08/31ra: gaitasun anitzeko agente tekniko bat lanaldi osoa, lanpostu ez-finkoa;
- 2025/08/01etik 2025/08/31ra: gaitasun anitzeko agente tekniko bat lanaldi osoa, lanpostu ez-finkoa;
- 2025/07/01etik 2025/08/31ra: berdeguneetako gaitasun anitzeko agente tekniko bat lanaldi osoa, lanpostu ez-finkoa;
- 2025/06/01etik 2025/08/31ra: berdeguneetako gaitasun anitzeko agente tekniko bat lanaldi osoa, lanpostu ez-finkoa.

Tokiko bizitzaren Polorako (mediateka, Arnaga museoa):
- 2025/06/01etik 2025/08/24ra: mediatekako harrerako arduradun bat lanaldi ez-osoa, astean 20 eta 30 orenekoa bataz beste, lanpostu ez-finkoa.

- 2025/04/01etik 2025/09/30era: museo eta monumentu historikoetako begirale bat lanaldi ez-osoa, astean 30 oren bataz beste, lan ez-finkoa ;
- 2025/05/01etik 2025/11/02ra arte: museo eta monumentu historikoetako begirale bat lanaldi ez-osoa, astean 30 oren bataz beste, lan ez-finkoa ;
- 2025/07/01etik 2025/08/31ra: museo eta monumentu historikoetako begirale bat lanaldi ez-osoa, astean 30 oren bataz beste, lan ez-finkoa.

Lanpostu horiek C kategoria hierarkikoan sartuko lirateke.

Lanpostua kontratu-agente baten kontratazioaren bidez beteko litzateke Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 2. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, zeinaren bidez kontratu-agente bat kontratatzen den jardueraren denboraldiko igoerari aurre egiteko. 12 hilabeteko epean, 6 hilabeteko gehienezko iraupen metatua.

Lanpostuari lurralde-laguntzaile teknikoaren graduko C1 eskalako lehen mailari dagokion 367 indize gordinari dagokion soldata eman ahal izango zaio.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzun eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak aho batez:

ERABAKI DU 10 lanpostu ez-finko sortzea, lanaldi oso eta ez-osokoak,

ZEHAZTU DU lanpostu horiek Lurralde Funtzio Publikoko langileen ordainsarien C1 eskalako lehen mailako indize handituari dagokion soldata izango dutela, egindako lanaldiaren proportzioan.

BAIMENA EMAN DIO auzapezari eranskinean proposatutako lan-kontratua izenpetzeko.

ONARTU DITU auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU behar bezainbat kreditu aurreikusiak direla abian den urteko aurrekontuan.

007 – Langileak: enplegu ez-finkoak sortzea, lanaren aldi baterako emendioaren kari.

EZTABAIDA:

Auzapezak Herriko Kontseiluari proposatu dio museoen eta monumentu historikoen begirale izateko lanpostu ez-finkoak sortzea, lanaldi ez-osoan, astean 30 orduz bataz beste, beherean idatzi bezala:

- 2025/04/01etik 2025/11/09ra: museo eta monumentu historikoetako 6 begirale lanpostu ez-finko, lanaldi ez-osoan.

Lanpostu horiek C kategoria hierarkikoan sartuko lirateke.

Museo eta monumentu historikoetako begiraleak jendeari harrera egiteko baldintzetaz arduratzen dira. Artelanak eta dokumentuak ikusteko edo gordetzeko erabiltzen diren eraikinetan lokalen ohiko mantentze-lanak bermatuko dituzte, establezimendu edo establezimendu-kategoria bakoitzaren barne araudiek zehaztutako zerbitzu-betebeharrak betez. Gainera, bisita komentatuak gidatu eta establezimenduen animazioan parte hartu dezakete.

Lan-kontratudun langileak kontratatuz beteko lirateke lanpostuak, Funtzio Publikoaren Kode Orokorraren 332-23 1. artikuluan xedatutakoa aplikatuz. Artikulu horrek aukera ematen du lan-kontratudun langileak kontratatzeko, aldi baterako jarduera handitzeari aurre egiteko, elkarren segidako 18 hilabeteko epean 12 hilabeteko gehieneko epe metatuan.

Lanpostu horiek Lurraldeko Funtzio Publikoko langileen ordainsarien C1 eskalako lehen mailari dagokion indize handituaren arabera ordainduko dira, egindako lanaldiaren proportzioan.

Gainera, 2018ko azaroaren 26ko Herriko Kontseiluan deliberazio bidez erran bezala, primak eta ordainsariak dirusarian sartuko lirateke, ondarearen lurralde-axuanten lanpostuen esparruan sartzen diren funtzionarioei dagozkien lanpostuen esparruan aurreikusia den bezala.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzun eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak aho batez:

ERABAKI DU 6 lanpostu ez-finko sortzea, lanaldi ez-osokoak, astean bataz beste 30 orduz, museo eta monumentu historikoen begirale gisa, 2025/04/1etik 2025/11/09ra,

ZEHAZTU DU lanpostu horiek Lurralde Funtzio Publikoko langileen ordainsarien C1 eskalako lehen mailako indize handituari dagokion soldata izango dutela, egindako lanaldiaren proportzioan.

BAIMENA EMAN DIO auzapezari eranskinean proposatutako lan-kontratua izenpetzeko.

ONARTU DITU auzapezaren proposamen guztiak,

ADIERAZI DU behar bezainbat kreditu aurreikusiak direla abian den urteko aurrekontuan.

008 – 2025eko aurrekontu-orientabideak

EZTABAIDA:

Aizpuru andereak, lehen axuantak, adierazi du lurralde-erakundeen jarduna haien urteko aurrekontuaren bozkak baldintzatzen badu ere, erabaki anitz hartzeak markatzen duela haien aurrekontu-zikloa. Aurrekontu-orientabideei buruzko txosten bat aurkeztea da ziklo honen lehen urratsa.

Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2312-1 artikuluaren arabera, 3.500 biztanle eta hauek baino gehiagoko herrietan, aurrekontuaren orientabide orokorrei buruzko eztabaida egin beharko da, hura bozkatu baino lehenagoko bi hilabeteko epean.

Aurrekontu primitiboa egiteko momentuan baldintza ahalik eta hoberenak izateko, aurkeztutako txostenak Herriko Kontseiluari elementu jakin batzuk ekarri behar dizkio. Hala nola, aukera eman behar dio Frantziako datu ekonomiko nazionalak eta tokiko sektore publikorako Estatuaren orientabideen bilakaeraren berri ukaiteko, herriaren finantza-egoeraren berri izateko, aurreikusitako aurrekontu-oreken lehen bista bat ukaiteko eta diru-sarreren eta gastuen zati handietan espero den bilakaera ezagutzeko. Aurreikusitako zenbait urtetarako engaiamenduak azaldu behar ditu, eta biltzar erabakitzailea zorraren egiturari eta kudeaketari buruz argitu.

Txosten hori Herriko Kontseiluan eztabaidatuko da, araudiak finkatutako baldintzetan. Biltzar erabakitzailearen berariazko eztabaida horren akta eginen da Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2312-1 artikuluak xedatzen duen bezala.

2016ko ekainaren 24ko 2016-841 dekretua aplikatuz, txosten horretan, besteak beste, funtzionamendu eta inbestizamendu gastuen nola diru-sartzeen aurreikuspenen bilakaerak agertu beharko dira, bai-eta aurrekontu-proiektua osatzeko aukeratutako bilakaera-hipotesiak ere.

Aizpuru andereak aurkeztutako aurrekontu-orientabideei buruzko eztabaidaren aurre-txostena entzun eta, Herriko Kontseiluak, proposatutako aurrekontu-orientabideak eztabaidatu eta gero, aho batez:

AKTA HARTU DU aurrekontu-orientazioari buruz eztabaidatu eta txosten hau egin eta erantsi dela. Aizpuru andereak, 2025 urterako deliberazio espezifiko baten bidez izendatu zen lehen axuantak, aurkeztu du txostena.

Eliane Aizpuruk aurrekontu-orientazio zehatza eta zorraren egitura eta kudeaketari buruzko txostena aurkeztu du. Dokumentuak bost zati ditu: testuinguru orokorra, 2025eko Finantzen Legea, herriaren finantzen egoera, 2025eko aurrekontu-orientabideak, hilobien aurrekontu erantsia eta hainbat eranskin.
Zehaztu du 2025erako hazkundea % 0,90ekoa litzatekeela eta inflazioa % 1,60koa (2024an % 2,00koa zen).
2025eko otsailaren 14an zabaldutako 2025erako finantzen lege proiektua aurkeztu du. 2023Ko % 4,9ko inflazioa mailaz maila jautsi da eta 2024an % 2ra iritsi da, 2025erako % 1,60ko estimazioarekin.
2025erako finantzen legeak, besteak beste, iragarri du:
• Defizit publikoa barne produktu gordinaren % 5,4ra murriztea;
• Tokiko kolektibitateek defizit publiko hori apaltzeko egin duten ekarpena, 2 200 milioi eurokoa;
• *DILICO* izeneko tokiko kolektibitateen zerga-bilketaren koiunturazko leuntze dispositiboa; (a priori, horrek herriari ez lioke eragingo);

• Funtzionamenduko horniketa orokorra handitzea, Tokiko inbestizamendurako horniketa-laguntzaren (*DSIL)* konkurrentzi-araberako apaltzearekin finantzatuta;
• Estatuko inbertsio-horniketak apaltzea tokiko kolektibitateentzat.
Zerga-xedapenetan, batez ere BEZaren konpentsazio-funtsaren tasan, % 16,404 mantendu da, ez da murriztu hastapenean aurreikusia zen bezala.
Gainerateko neurrietarako, Tokiko Kolektibitateen Langileen Erretreta Kutxa Nazionala-ren (CNRACL) kotizazio-tasa handituko da, kontuak berrorekatzeko 12 puntu 4 urtetan, hau da, 2025ean 3 puntu igo da eta horrelako segidarekin jarraituz. 2024Ko % 31,65etik % 43,65era igoko da tasa 2028an.
Estatuak ez du konpromisorik hartzen tokiko funtzio publikoan egiten den aprendizgoaren finantziazioan.
Funtzionarioen eri-geldialdietan kalte-ordainen tasa tratamenduaren % 90era pasatuko da lehen 30 egunetan; gaur egun % 100ekoa da lehen egunetik hasita.
Gidaritza finantzarioak "berdea" izan beharko du.
Kanboko finantza egoera:
Funtzionamenduan:
Diru-sartze errealak 7 509 732,96 €-koak dira, eta, gastu errealak, 6 563 079,72 €-koak. Hori dela-eta, kudeaketa-aurrezkia 946 653,24 €-koa da.
Hala, aurrezki tasa % 11,40an da; iaz % 7,89koa izan zen.
Urteko kapitala itzultzea: 445 746,45 €.
Aurrezki erabilgarria (aurrezki gordina ken zorpetze-kapitalaren itzulketa) 410 232,79 €-koa da.
Inbertsioan:
Gastu errealak 2 065 372,02 €-koak dira, eta, diru-sartze errealak, 955 104,96 €-koak. Beraz, 1 110 267,06 €-ko finantziazio-beharra dago.
N-1 finantza alditik emaitza erakarria: 1 441 226,88 €.
Finantza aldiko emaitza metatua 2024ko abenduaren 31n: 1 840 555,61 €
2024ko abenduaren 31n ordaintzeko dagoen kapitala: 4 418 828,81 €
Hau da, zorra 5,16 urtez ttipitzeko gaitasuna.

PARTE HARTZEAK:

Auzapezak adierazi du herriko aurrezki gordina 856.000 €-koa dela, eta urteko zorra 5,16 ttipitzeko ratioa duela; beraz, biziki maila ona da. Horri esker, inbertsio esanguratsuak finantzatzeko aukera aztertu daiteke, testuingurua zaila izan arren zorpetzea sobera makurtu gabe.
Baionako finantza egoera aipatu du, tokiko egunkarian hedatu dena. Zentzu anitzetan eredugarria den hiri honek urteko zorra 7,5 ttipitzeko ratioa du. Kanbokoa anitzez hobea dela nabarmendu du, 5,16 urtekoa.
Auzapezak argitu du helburua ez dela beste udalerri batzuekin konparatzea, batez ere neurri desberdinekoak izaki, baizik-eta egin diren ahaleginen kalitatea azpimarratzea, finantza-ratio bikain hori lortuz. Emaitza on horrek mailegu-erakundeetatik finantzaketa lortzea errazten du, tasa onuragarrietan, eta hori elementu garrantzitsua da 2024ko aldia hesteko garaian.

Eliane Aizpuruk ratio nagusiak aurkeztu ditu, biztanleko funtzionamenduko gastu / diru-sartze errealei dagozkienak, eta 2023koei dagokienez, 64 departamenduko herrien batez bestekoarekin eta Frantziako zenbaki adierazlearen batez bestekoarekin konparatzen dira.
2024ko abenduaren 31ko kapital-zorra 4.417 €-koa da, hau da, 648 € biztanleko, 64 departamenduko eta Frantziako maila bereko batez besteko zorpetzea baino ttipiagoa.

Eliane Aizpuruk azaldu du aurrekontuak prestatzeko prozedura abian dela. Txostenaren zenbakiak gastu eta diru-sartzeen aurreikuspenak dira, bai funtzionamendurako eta bai inbestizamendurako. Aurreikuspen horiek aurrekontua bozkatu aitzin egokituko dira, atxikiko diren hipotesien arabera.
Aurrekontuaren orientabide orokorrek joera politiko hauek txertatzen dituzte:
• Zerga-tasari inflazio-aurreikuspena aplikatzea: horrela, bigarren etxebizitzen gaineko bizitegi zergen tasa + % 2 igotzea proposatzen da, lurzoru eraikien eta eraiki gabeko lurzoruen gainean.
• Anbizio handiko udal-politika publiko batekin bat datorren urte anitzetako inbestizamendu egituratzaileen programa osatu.
Orientabide orokor horiek Frantziako testuinguruaren, are nazioartekoaren, eta diru-laguntzen menekoak izanen dira.

PARTE HARTZEAK:

Auzapezak oroitarazi du, herriko ohiko politikarekin bat eginez, zergen igoerak inflazioarekin parekatuak direla orokorrean; 2024an inflazioa % 2koa zen. Hala ere, bigarren etxebizitzen gaineko zerga salbuespena da: bi puntu igo da, egungo % 2ko tasa baino anitzez gehiago.
Azaldu du hastapenean hiru tasa fiskalen arteko balizko deskonexioaren berri ukan zuela eta horrek bigarren etxebizitzen gaineko zerga gehiago igotzea ekarriko zuela. Baina azkenean desberdintze hori ezinezkoa da. Tasa guztietan % 2ko igotze uniformea aplikatzea proposatzen da.

Argitxu Hiriart-Urrutyk adierazi du ez dituela emandako azalpenak ulertzen.

Auzapezak argitu du ehuneko igoeraren eta puntuzko igoeraren arteko desberdintasuna. Azaldu du % 10eko tasari % 2 gehitzeak % 10,2ra igoko lukeela, eta 2 puntu gehitzeak % 12ra. Igoera anitzez adierazgarriagoa da. Errepikatu du, bigarren etxebizitzen gaineko bizitegi-zerga gehiago igotzeko asmoa bazen ere, hori ez dela posible, zerga hori gainerateko tasekin (eraikitako eta eraiki gabeko ondasun higiezinekin) lotua delako. Beraz, % 2ko igotze uniformea ezarri behar da tasa guztietarako.

Argitxu Hiriart-Urrutyk nahasmena adierazi du, eta oroitarazi du bere taldeak hastapenean bigarren etxebizitzen gaineko zerga gehiago igotzeko galdegin zuela eta auzapezak proposamen hori ukatu zuela. Kontraesan bat ikusten du. Orain, auzapeza, igoera desberdindu hori ezin aplikatu izanaz damu dela dirudi.

Auzapezak erantzun du ez zela printzipiozko ezezkoa izan, baizik-eta iaz hausnartutako erabakia izan zela, bigarren etxebizitzen gaineko bizitegien zergaren ezohiko igoera legez % 60raino irits zitekeenekoa. Hala ere, oroitarazi du Kanbon ez dela sekula aukera hori aintzat hartu. Bigarren etxebizitza anitz, berez, «sasoiko» alokairuak baitira, urtean 10 hilabetez alokatuak, tokiko ekonomiarentzat funtsezkoa den aktibitate termalari lotuak. Gain-zerga ezartzea herriarentzat urtean 7 milioi euro inguru sortzen dituen sektore bat zigortzea litzateke.

Argitxu Hiriart-Urrutyk galdegin du ea iaz bigarren etxebizitzen gaineko bizitegi zergaren igoera handiagoa izatea posible ote zen.

Auzapezak azaldu du % 60ko igoera aplikatu nahi ez bazen ere, % 2koa baino handiagoa eman nahi ziola, bigarren etxebizitzen gaineko tasari 2 puntu erantsiz. Hala ere, tasen korrelazio-murriztapenak zerga guztientzat % 2ko igoera uniformea mantentzera behartzen du.

Argitxu Hiriart-Urrutyk adierazi du zergak etengabe igotzen ari direla, eta nabarmendu du 10 edo 11 urteko aginte-denboran ez duela sekula lur-zergaren igoerarik gabeko urterik ikusi.

Auzapezak onartu du lur-zergan ez dela igoera apartekorik izan, baina zerga guztiak manera erregularrean igo direla urtero, inflazio-tasarekin lerrokatuak orokorrean. Politika hori justifikatu du funtzionamendu eta inbestizamendu-kargak berez igotzen direlako bizitzaren kostuarekin, % 2 inguru aurten. Horri esker elkarteentzako dirulaguntzak % 2 handitzen segitzeko aukera izan du bereziki, finantza-testuingurua zaila izan arren politika orekatua mantenduz, dirulaguntzak murriztu edo izoztu dituzten hurbileko zonbait kolektibitatek ez bezala.
Azaldu du herriko zerga-politika dela urtero errepikatzen diren zergak guttienez inflazio-mailara egokitzea, zerga-palanka erabilgarrien pixkanakako galera dela-eta. Bizitegi nagusiei bizitegi-zerga kenduz kolektibitateek lur-zergaren gainean eragin dezakete orain, eraikitako lurretan batez ere. Hori da orain zerga-palanka nagusia, zonbait herrik nabarmenki igo dute zerga hori, batzuetan bi zenbakiko igoerarekin. Azpimarratu du etengabeko gorakada egin arren Kanboko lur-zerga % 2 igo dela, eta hori beste komunitate batzuekin konparatuz moderatua dela. Aldi berean Estatuko, Eskualdeko eta Departamenduko dirulaguntzak murrizten ari dira eta mailegua egitea beste aukera biziki mugatua izaten segitzen du.

Eliane Aizpuruk funtzionamenduaren eta inbestizamenduaren atalerako 2025eko aurrekontu-orientabideak azaldu ditu.

Hilobien funtzionamendu-atalaren aurreikuspenaren xehetasuna eta hainbat eranskin azaltzen ditu (ratioak, finantza-lehiaketak, fiskalitatea, prezioak, ordaindutako dirulaguntzak, lotura-EPCItik eskuratutako konpentsazioak eta 2025-2031 zor-saldoak).

PARTE HARTZEAK

Auzapezak herriak eman dituen dirulaguntzen maila igo dela aipatu du berriz ere: 114.000 €-tik 120.000 €-ra pasatu da, egonkortu edo murriztu ere egin dituzten beste herri anitzetan ez bezala. Tokiko elkarte-sarearen aldeko ahalegin hori azpimarratu du. Prezio finkoaren igoera adierazgarria aztertzen ari direla gaineratu du. Errobi Ikastolarentzat 50.000 €-tik 56.000 €-ra pasako litzateke, eta Saint Michel Garikoitzentzat 88.000 €-tik 93.000 €-ra. Igoera horiek erakusten dute, haren ustez, herriak bere hezkuntza bazkideekin duen engaiamendua.

Bukatzeko, auzapezak adierazi du aurrezki gordina, lehen erran bezala 900.000 €-takoa gutti gorabehera, mailegua egiteko aukera ematen duen funtsezko adierazlea dela. Zehaztu du urterako aurreikusitako zorpetzea aitzineko urteko maila berdinean mantentzen dela, hau da, 2.400.000 €-tan. Inbestizamenduei dagokienez, 5 milioi euro baino gehiago bideratuko dira ekipamendu gordinera, eta horietatik 600.000 € bideetara bideratuko dira, errepideetako proiektuek ez dutelako dirulaguntzarik ukaiten. Atxiki diren beste inbestizamendu proiektuak aldiz dirulaguntzak ukan ditzaketelako atxiki ziren bereziki. Horrek finantza-kudeaketa zuhurra mantentzea ahalbidetzen du, proiektu egituratzaileak egiten diren bitartean.

– Hainbat gai:

Peio Etxeleku eta Jean-François Lacostaren bi galdera:

Lehen galdera: "Ikusi dugu datorren Kontseilu Komunitarioko gai-ordenean Uztaritzeko hirigintza-dokumentuen egokitzapen bat onartzea aurreikusten zela, Seaska ikastolen federazioaren etorkizuneko lizeoa hartzeko. Horrek erran nahi du Kanbon halako lizeo bat ezartzeko esperantza guziak galdurik direla? Dosierra eta desmartxa horren kudeaketari buruzko argibide bat eman diezagukezu? Zeintzuk dira gure herriak halako aukera bat huts egiteko arrazoiak? »

Auzapezak adierazi du galderari erantzunen diola, baina zehaztapen bat egin du: datorren Kontseilu Komunitarioan Uztaritzeko herriari dagozkion hirigintza dokumentuen egokitzapen bat onartzea aurreikusten da. Berak ez du kontseilu horretan parte hartzen, baina informazio hori berretsi du beste auzapez batekin elkarrizketan aipatu dutelako. Azken horrek Kanbon lizeo proiektu baten inguruan auzapezak Seaskarekin dituen harremanen berri zuen eta baieztatu dio dirudienez Uztaritzeren alde aintzinatzen ari dela orain dosierra.

«Horrek erran nahi du Kanbon halako lizeo bat ezartzeko esperantza guziak galduak direla? »

Auzapezak adierazi du ezin duela zehaztasun gehiagorik eman, Uztaritzeko THP-aren bilakaerak herri horren hautua jadanik egina dela pentsaraz dezakeela besterik gabe.

"Dosierra eta desmartxa horren kudeaketari buruzko argibide bat eman diezagukezu? Zeintzuk dira gure herriak halako aukera bat huts egiteko arrazoiak? »

Auzapezak adierazi du Seaskako buruek bakarrik zehaztu ditzaketela edo zehaztu ahalko lituzketela hautu horren arrazoiak. Gaineratu du, maila pertsonalean, Hur Gorostiagarekin harremanetan sartu zela 2024 urtearen bukaeran Aristizabal anderearekin izandako bilkura baten biharamunean, dosierrari buruz mintzatzeko.
Egun batzuk berantago Hur Gorostiagak auzapezari deitu zion hitzordu bat proposatzeko, eta, aldi berean, adierazi zion dosierra aintzinatua zela, seguraski Uztaritzeren alde, baita Donapaleu edo Itsasuren alde ere. Bestalde, auzapezak berriz deitu zuen, baina ez du lortu.
Auzapezak argitu du lehen aipatutako osasun taldeko zuzendari nagusiarekin ere harremanetan jarri zela biharamunean. Zuzenean mintzatzeko aukera ukan du, eta apirileko bigarren hamabostaldian taldeko zuzendaritzarekin bilkura bat egitekoak dira.

Argitxu Hiriart-Urrutyk auzapezak aipatutako osasun taldeko zuzendari nagusiaren eta Seaskako dosierraren arteko loturari buruz galdegin du, eta bi gaien arteko harremana zein den.

Auzapezak azaldu du badela gehiengoaren taldearen beste proiektu bat Seaskaren proiektuaren leku berdinean ezartzeko. Aintzinako bilkura batean ere aipatu zen gai hori.

Amaia Beyriek argitu du herriaren hautua ez dela erabakia, eta momentu honetan Uztaritze ez dela hautatua. Egindako kudeaketaren helburua da, besterik gabe, proiektua fite gauzatzea. Hainbat herri, tartean Uztaritze, mobilizatzen ari dira proiektu hori burutzeko boluntarioak baitira.

Auzapezak eskerrak eman dizkio Beyrieri zehaztasun horregatik, informazio hori ez zuela adierazi du.

Jean-François Lacostak Kanbo proiektu horren baitan kokatzen den edo ez jakiteko berrespena galdegin du.

Auzapezak berretsi du Hur Gorostiagarekin bildu behar duela Kanboren erabilgarritasunari buruz mintzatzeko. Bi proiektuen eskakizunak uztartu behar direla zehaztu du. Seaska Kanbon, Beaulieu gunean, instalatzeko interesa berretsi du, eta bilkura horretarako datak proposatu ditu.

2. galdera: "Seaskako zuzendariarekin izandako elkarrizketa batean Kanbo Behereko eskolako lokalen erabilera aztertzeko borondatea ere adierazi zidan, haur ttipien murgiltze sistemaren inguruko balizko proiektu bati begira. Aipatu al da gai hori? Erantzuna baiezkoa bada, zertan dira elkarrizketak? »

Gaur egun aldi baterako hetsia den Kanbo Behereko eskolari buruz, auzapezak erantzun du Kanboko Harmoniarekin eta Euskal Herria Hirigune Elkargoak kudeatzen duen kontserbatorioarekin batera proiektu bat hausnartzen ari direla. Helburua litzateke bertan, ikasturtean, Kanboko eskola publikoetako ikasleentzat musika ezagutzeko tailerrak antolatzea. Iniziatiba horren helburua gazteak arte musikalaren inguruan sentsibilizatzea litzateke, praktika instrumentalarekiko interesa piztea eta, orokorrean, ikastetxe horren destino hezitzailea mantentzea.
Herriak Kanboko Harmoniako buruarekin eta Euskal Herriko Orkestrako zuzendari ordezkaria eta bere zuzendaritza taldeko kidea ere denarekin harremanetan da. Harekin eta Antton Curutcharryrekin, Hirigune Elkargoko Kultura arloko lehendakariordearekin, bildu behar du, Kanbo Behereko eskolaren inguruan izan daitezkeen bilakaerei buruz mintzatzeko.

Auzapezak Nahi Dugun Herria taldearen bi galderak aztertu ditu:

Argitxu Hiriart-Urruty:
«Webgunean ikusi dugu Kanboko ur araztegiari buruz martxoaren 24tik apirilaren 24rako bitartean jendeen online parte hartzea irekitzeko abisua badela. Edukia aski mugatua da, orrialde bakarra, baina, zalantzarik gabe, gehiago zabalduko da martxoaren 24tik aintzina? ».

Auzapezak erantzun du ur araztegia ustiatzeko baimena berritzea dela kontua. Desmartxa erraza da, herriko proiektu-ingeniariak ikuskatua, eta prefetak erabakia, logikoa denez.

Argitxu Hiriart-Urrutyk galdegin du ea zer esan nahi duen "parte-hartze publikoa irekitzearen abisua" esamoldeak.

Auzapezak azaldu du horrek ikerketa publiko bat egitea erran nahi duela besterik gabe, pertsona guztiei irekia.

Magisek zehaztu du irekitze-abisua hilabete bat irauten duen ikerketa publiko klasiko baten aitzineko iragarkia dela. Ikerketa hasi baino hamabost egun lehenago herritarrek dosier osoa eskura ukanen dute. Prozedura horiek, hain zuzen ere, ur araztegien ur-botakinen baimenak berritzeari buruzkoak dira.

Argitxu Hiriart-Urrutyk ondorioztatu du informazio gehiago lortzeko martxoaren 24ra arte itxoin beharko dela.

2. galdera: "Bestalde, Herriko Etxearen webgunean, aitzineko orrian, euri-urei buruzko dosier bat zegoen, bertako eranskin batean, hornikuntza sendagarriak aipatzen dira. Paskalekun egitekoa den aire libreko ur-atxikitze urtegiari buruzko zehaztasun gehiago nahi genuke, zer neurritakoa, auzoko biztanleentzat balizko arriskuak eta abar. Baita gainerateko auzoetan, sare-indartzea edo lurpeko ur-atxikitze urtegiak sortzea aurreikusten den lekuetan ere, zonaldeka egiteko moldeak jakin nahi genituzke".

Auzapezak azaldu du bi ur-atxikitze egitea aurreikusia dela, ur-arazoak ekiditeko Geltokiko bidetik gorako etxe multzoan eta beherako trenbidean. Urtegietako bat SCI Bordelaise-n lursailean kokatuko litzateke, bestea Beaulieu klinikaren lursailean. Horrek hiri-kudeaketan elementu hori kontuan hartzea dakar, Osasun Poloaren eta Seaskaren beharrak uztartuz.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak zehaztu du proiektu hori herriko euri-uren eskema nagusiaren zati bat dela, Hirigune Elkargoa buru duela eta bi gai garrantzitsuri eragiten diela azpimarratu du.
Bi puntu nagusi landu dituzte: duela bi urte Termen zubitik ur araztegira doan kanalizazioa osoki birgaitzea eta Paskalekun ur-atxikitze urtegia sortzea, 2009ko THP-an erreserbatutako lursailean.
Hunkituak diren auzoetan uholdeak izateko arriskuak prebenitzea da egokitzapenen helburu nagusia, auzapezak adierazi duen bezala. Eltxoek eragin ditzaketen eragozpenez gain, gaur egun ez da urarekin lotutako eragozpen handirik, oraingoz ez baitago ez ponpatzerik ezta martxan den makineriarik ere. Tokiko Funtsen Erakunde Publikoa da lurren azterketak eta negoziazioak gidatzeko arduraduna, Coliseo taldearekin, foncière Bordelaise sozietatea barne hartzen duena. Elkargoko 2025eko aurrekontuak urtegiak egitea aurreikusten du, egoera optimoa gutti gorabehera 1.200 m³-ko atxikipen-ahalmenarekin.

Argitxu Hiriart-Urrutyk aurreikusitako obrei buruzko dokumentazio guztia eskuratzea galdegin du, batez ere aurreikusitako ur-atxikitzeei buruzkoa.

Auzapezak erantzun du 2021az geroztik aurreikusitako lan guztiak, bat bera hasi ez bada ere, jakinarazi daitezkeela kontsultatzeko.

Argitxu Hiriart-Urrutyk aipatu den azken puntua berriki egin den azterlan bati buruzkoa ote den galdegin du.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak puntu hori eskema nagusitik datorrela berretsi du. Gaur egun ur-atxikitze putzuak bakarrik dira programatuak; gainerateko lanak oraindik ez.

Auzapezak adierazi du ur-atxikitzeak asmoak direla eta oraingoz ez direla programatuak, batez ere lurren maisutzaren gaineko ziurgabetasuna dela-eta. Herriko lursailaz gain, hunkituak diren beste lursailak, SCI Bordelaise–Coliseorena bezala, beharbada ez direla erabilgarriak, jabeek ez baitute saltzeko asmorik. Oroitarazi du hainbat urte daramatzatela elkarrizketa horietan.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak erran du ur-atxikitze putzuen proiektuak eztabaidatzen 4 urte daramazkitela. Kanboko herriak 2007 edo 2008tik lehen azterketa bat abiatu zuela zehaztu du.

Argitxu Hiriart-Urrutyk, beraz, egiaztatu du ez dagoela proiektuari buruzko dokumenturik.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak baieztatu du solaskideen esku dauden dokumentuez gain, momentu honetan ez dagoela programazio-dokumentu ofizialik.

Argitxu Hiriart-Urrutyk galdegin du ez ote dagoen kontsultatzeko dokumenturik, eta lanen finantziazioari buruz galderak ditu, gastuak Hirigune Elkargoak edo udalak ordainduko ote dituen jakiteko.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak argitu du eskema nagusia, eranskin hau barne, interneten eskuragarri dela. Hala ere, obren benetako programazioari dagokionez, Elkargoaren egungo aurrekontu-izendapen bakarrak Paskalekuko atxikitze-putzuei dagozkie.

Seaskaren dosierraekiko galdera osatzeko, Jean-Noël Magisek adierazi du Uztaritzek THP-a garatzeko abiatu duen prozedura proiektu-adierazpen bat dela, hirigintza agiria proiektu zehatz batekin bateragarri bilakatzeko, kasu honetan lizeo baten proiektuarekin. Erabakia oraindik ofiziala ez bada ere, prozedura hori Uztaritzen abiatzeak pentsaraz lezake proiektua seguraski herri horretara bideratua dela, baina deus ez da erabat segurtatua.

Amaia Beyriek argitu du talde erabakitzailearen parte dela eta azken erabakia ekainean hartuko dela Ikastolen Kontseiluan.

Jean-Noël Magisi hasitako prozedura harrigarria iruditzen zaio testuinguruari begira.

Amaia Beyriek erantzun dio prozedurari buruz adierazi duen zalantzaren inguruan oker dagoela.

Magisek zehaztu du Kanbo ez dela gibelean gelditzen, eta Beaulieu klinikaren sektorea THP-aren aldaketa bat egiten ari dela, gaur egun UE eremuan dagoena (ekipamendu medikala), UB eremu batera bilakarazteko. Hala, lizeoa baten antzeko ekipamendu bat hartzeko aukera izanen litzateke. Hirigintza batzorde bat eginen dute bilakaera hori aurkezteko.

Auzapezak bilkura bukatutzat eman du 21:15ean.

Joana LACARRA
Bilkurako idazkaria

Christian DEVEZE
Kanboko auzapeza